



IBARRA

AGUSTÍN IBARROLA

2020ko urriak 24 - 2021eko uztailak 4

Rekalde Aretoak **Agustín Ibarrola, naturalki** erakusketa aurkezten du, artistaren 90. urtebetetzearekin bat eginez. Erakusketa, Bilbon 1930eko abuztuaren 18an jaiotako artistak merezi duen omenaldi eta aitorten bat da.

Erakusketak aretoaren espazio osoa okupatzen du eta Agustín Ibarrolaren obrak naturarekin duen harremanean sakontzen du. Hala, 70eko hamarkadaren amaieratik, artistaren lanetan, antzematen da naturarekiko lotura funtsezkoa dela eta, Rekalde Aretoko topaketa honetan, sortzailearen lengoaia plastikoa egituratzen duten naturarekin lotutako gakoak aurkezten dira.

Jose Ibarrola da erakusketaren komisarioa eta hauxe adierazten du: "Hirurogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, Agustín Ibarrolak natura eta trenbide-trabesak sartu zituenean bere pintura eta eskulturen euskarri gisa, bere ekoizpen artistikoan etapa berri bat ireki zuen".

Horrela, "berezko lengoaia plastiko konplexu eta garaikide bat garatzen hasi zen. Lurrazpiko ibai sakon batek bezala, bere ekoizpena zeharkatzen duen lengoaia da eta bere obra guztian zehar igarotzen da, lan espresionistenetik arrazionalistenera edo figuratiboetatik abstraktuenetara".

Agustín Ibarrola, naturalki erakusketaren ibilbidea artistak lantzen dituen euskarriekin eta materialekin lotutako lau arlo desberdinetan egituratzen da: egurra, harria, burdina eta papera. Horien inguruan, artistaren kezka formal eta lan-prozesu ugari ezagutu daitezke, beti lotuta daudenak linearekin eta kolorearekin, bere obraren ardatz egituratzaile gisa.

Erakusketak hauxe biltzen du: trenbide-trabesak; pinturak; eskulturak; collageak; marrazkiak; Omako *El Bosque Pintado* (1982-2000) eta Llaneseko portuko *Los Cubos de la Memoria* (Asturias, 2001-2006) bezalako ingurune naturaleko esku-hartzerik esanguratsuenetariko batzuen maketak eta argazkiak; Bottropeko Prosper Haniel-Ruhreko ikatz-gailurraren gaineko trabesak (Alemania, 2002) eta Garozako *Piedras Pintadas* (Muñogalindo, Avila, 2005-2009). Horiekin batera, 2017an bere Omako baseritik hurbileko zuhaixken hostoen gainean egindako azkenengo pinturen argitaratu gabeko irudi batzuk erakusten dira.

Berariazko eremu batean, Agustín Ibarrolak berak egindako argazki-erregistro bat erakusten da. Hain zuzen ere, argazkietan, 1989an Ereñozar mendia erre zuen sutearen ondorioz agerian geratu ziren haitzen gaineko esku-hartze batzuk agertzen dira. Azkenengo sugeldoak itzali ondoren eta landare-bizitza berriro hazi aurretik, artistak zenbait motibo sinboliko, zinetiko eta geometriko margotu zituen haitz biluzien gainean. Apur bat geroago, 1993an, haitzen gaineko beste esku-hartze piktoriko bat amaitu zuen Gautegez-Arteaga ingurunean, irmoki iragankorra zen esperimentazio-eremu bat sortuz.

Audioa eta irudia

Erakusketak Josu Venerok zuzendutako *Agustín Ibarrola, naturalki* (2020) dokumentala aurkezten du; zuzendariak oso ondo ezagutzen du artistaren obra eta bere kamerarekin artistaren ibilbidearen parte handi bat erregistratu du. Jatorrizko ikus-entzunezkoa sortzailearen lan nagusiak dokumentatzen dituen irudien laburpen bat da, trabesetik, *El Bosque pintado*, *Los Cubos de la Memoria* edo Corten altzairuzko eskultura publiko monumentaletara.

Bideo honen soinu-banda, sarreran sortutako soinu-girotzearekin batera, bere iloba Naiel Ibarrolak ospakizun honetarako egindako sormen bat da. Naielek hauxe azaltzen du: "Konposizioa hiru soinu-piezatan banatuta dago, Agustín Ibarrolaren trabesek, altzairuzko eskulturek, harriek eta tresnek sortzen dituzten soinuen grabaziotik sortutakoak.

Guztia hasten da goizeko 7etan, Omako haranean; eguzkiaren lehenengo izpiekin, txorien arteko elkarrizketak grabatzen ditut. Lehenengo pieza soinu-paisaia horrekiko joko harmonikotik sortzen da.

Bere trabesak txalaparta bat bezala ukitzean sortutako soinuek eta eskulturak, harriak eta tresnak erritmo-oinarri gisa erabiltzeak bigarren piezaren norabidea ezartzen dute. Eta hirugarrena nire aitonarentzako opari bat da, bere 90. urtebetetzerako.

Konposizio honi esker, nire aitonaren obra itzelarekin jolastu ahal izan dut berriro. Txikia nintzenean eta eskulturez betetako lorategi hura nire anaiarekin ikertzen nuen planeta ezezagun bat zenean bezalaxe."

Agustín Ibarrola Goicoechea (Bilbo, 1930) familia langile batean jaio zen eta oso gaztea zenean hasi zen ikasten Bilboko Arte eta Lanbide Eskolan. Geroago, 1948an, bere lehendabiziko banakako erakusketa egin zuen Bizkaiko hiriburuan. Horren ostean, Madrilera joan zen eta Daniel Vázquez Díazen lantegian sartu zen; orduan, euskal tradizio piktorikoa Arte Garaikidearen abangoardiaren korronteeekin uztartzeko interesa erakutsi zuen.

1950ean, Gipuzkoako Arantzazuko basilikaren lanetan parte hartzera gonbidatu zuten. Atarirako horma-irudi bat egiteko eskatu zioten, nahiz eta ez zuten inoiz gauzatu. Parisera joan zen 1956an eta, bertan, lan desberdinak egiteaz gain, berarekin *Equipo 57* osatuko zutenak ezagutu zituen. Izan ere, 1993an, Arte Ederretako Merituaren Urrezko Domina lortu zuten. 1987an, Kultura Ministerioak eta Madrilgo Udalak erakusketa antologiko handi bat antolatu zuten, apur bat beranduago Bilbon eta Zaragozan errepikatu zena.

AGUSTÍN IBARROLA

2020ko urriak 24 - 2021eko uztailak 4

HURRENGO ERAKUSKETA

ERTIBIL BIZKAIA 2021

2021eko uztailak 15 - urriak 12

rekalde

Alameda Recalde, 30 | 48009 Bilbao
Tel. +34 94 406 85 32
www.salarekalde.bizkaia.net

Ordutegia

Asteartetik larunbatera: 10 - 14 eta 17 - 20:30
Igande eta jai egunetan: 10 - 14
Astelehenetan itxita

Horario

Martes a sábado: 10 - 14 y 17 - 20:30 h
Domingos y festivos: 10 - 14 h
Lunes cerrado

Opening hours

Tuesday to Saturday: 10 - 14 and 17 - 20:30 h
Sundays and holidays: 10 - 14 h
Monday closed



sarrera doan | entrada libre | admission free